

Egia esan, txunditurik uzten gaitu Latxagaren lanak. Ez dakigu zenbat denbora behar izan duen lan honen burutzeko, halare nekez aurki daiteke halako lan osoagorik —mendiko liburuen sailean behintzat—.

Atsegin handiz eta harrapatata batean orrikatzen den liburu mardula. Izan ere ez ditu soilik mendiko gaiak erabilgailu, ez! bertan toponimia, etnografia, ipui eta euskarazko testu zaharrak, historia, arte etab aurkitu ditugu nahas-mahas. 318 orrialdetako liburu bikain honetan badugu zer ikusi eta ikasi.

Pirineo maldapetako herrien euskararen egoera, bizitza, monumentu, oroitgailu, eliza etabarren aipamen ugari irakurriko dugu.

Euskararen egoerari gagozkiolarik, garbi dakusagu gure hizkuntzaren «ahultasun behartua». Ikusten dugu nabarmen, euskarak sortalde aldera izan duela hilobirik azkarretakoa.

Hainbat herri hustutzen ari dira, herriko zaharrak hiltzen. Gazteak eta ez hain gazteak etxeko abereak akabatu ondoren hegoalderantz doaz, maiz Iruinerantz, hemen deseuskaldunduak, desherriratuak eta hustiatuak izango dira. Gelditzen diren banaka horiek, jatorrizko hizkuntza galdua dute eta kanpoko erdara gaizki ikasi... Liburu honek ba duke azaltzen diren herrien azterketa sozio-kulturala egiteko materialik.

Ez gaude beraz liburu monotono baten aurrean. Herri gehienetan pausaleku egiten du autoreak: batzutan bertako biztanleak mintzarazten ditu, bestetan egilea bere gisa inguru historikoaz solaztatzen da.

Halare ez nuke nahi aipatzeke utzi liburuan irakurri dudana pasarte bat .182 garren orrialdean eta Otsagabiari buruz ari delarik, Etxamendi behenafarrak kantatzen duen Otsagabia izeneko abestiak mintzo da. Etxamendik bere kantuan «Naparroa arrotzturikan» dagoela esaten duelako hara zer dioen Latxagak: «Naparroak oso ondo gorde du bere arnasa. Ikus gaur Diputazioak daukan nortasuna ta ematen ditun urratsak». Eta jarraitzen du «Bere eskuz, bere buruaren jabe Naparroaren alde jokutzen ari da».

Gezurra dirudi zazpi egunez, harririk harri, basorik baso, etxerik etxe ibili den kristau batek horrelakorik esatea!

Gipuzkoako Orexa izan ezik, ia beste Napar herri guztietan arnasarik gabe euskal nortasuna hilobiratzen ikusteak, ez al da Naparroa arrotzturikan dagoela esateko? Berdintsu esango genuke Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta ipar aldeko hainbat herri aipatuko bagenitu! Zuberoka adibidez, Erronkariren sasi mugako haurride norik esango liguke arrotzu ez denik? Zoaz Maule eta Atarratzera eta entzun frantzes erdara nagusi!

Geroago hauxe diosku egileak: «Urbildu zaitez Iruñara, begiak zabalik ikus eunka aur ikastoletara... Naparroako agintariak bere gain ikastolak artzen dituztela, artzen, indartzen, suspertzen». Eta nik diot, Diputazioak lehen lagundu zukeen (?), zeren orain badirudi lagundu ez baino izorratzen ari dela. Irakur bestela J. M. Satrustegiren artikulua Puntu y Horan Ikastolak direla ta.

Ikus baita Puntu y Horaren 38garren zenbakia «Congreso de Ikastolas», deritzan artikuloa; Nafarroako ikastoletako ordezkariak hauxe esaten digute: «En el aspecto político-administrativo y práctico, no se puede menos de lamentar el escaso uso que nuestra Diputación ha hecho de sus competencias de autonomía foral... Ya en el tema que nos ocupa, la enseñanza, se ha comentado con cierta razón que la Diputación pudo haber constituido un pequeño, pero auténtico Ministerio de Educación en Navarra, si hubiera ejercido la presión político-administrativa con la altura y técnica precisas».

Aurrerago beste hau irakurriko dugu: «Diputazioak bere aldizkaria euskaraz bakarrik egiña badauka ta utsean banatzen die-na euskal sendi guztiei. Nola esan leike arin arin «Bainan Primaderarik Naparroarat ez heldu».

Hona, egilearen hitzak. Diputazioaren aldizkariari (?) buruz zera esan behar da: Diputazioak argitaratzen zuen separata hura, hilabetekaria hain zuzen, joan deneko urte betean ez dela gure eskuetara iritsi. Bizitze laburra benetan hain laguntzaile (?) agertzen zaigun Diputazio ahalguztidunaren haur batentzat.

Bai, neuk ere Etxamendirekin batera berresan behar dut: «Baina primaderarik Naparroarat ez da heldu». Beste Euskal Herri guztira heldu etzaigun bezalaxe. Hori egiaztapen logikoa da edonorrentzat.

Neguan gaude oraino, Pirineotako elurrak luzaro irauten du...

Izan ere, orain arte behintzat Nafarroako Diputazioak baino askoz lan gehiago egin dute euskal kulturaren alde, han eta hemen barreiaturiko hainbat eta hainbat euskaltzale anonimok. Autore berak ematen digu gainera adibide eder bat bizpahiru orrialde lehenago, Herriberatik etorririko apaizarena. Nondik eta Herriberatik euskal kulturaren suspertzailerik! Lekutan zegoan Diputazioa!

Naparroako etxe amilduak, kanposantu eroriak eta bide galduak mintzatuko balira! Izan ere gauza bat da izena eta beste bat izana; ez baita aski Foral dela esatea.

Baina egin dezagun aurrera. Idazle alai eta bizikor, hiztegi aberats bat darabil. Bestalde liburu honek zahaztasun asko ematen digu: hor dugu esate baterako Mendigatxa erronkariarrak Azkue zenari 1904 garren urtean igorri zion eskutitza.

Aipagarria baita Antso haraneko deitura euskaldunak, guz kuriositate bezala hango hilobitan beste hauek ere ikusi ditugu: Be-

rangua, Barrena, Ara, Belzuz eta abar... Bada dago bai arlo honetan zer eginik frango!

Zilegi bekit baita ohartxo bat egitea: nahiko zabaldu da gure artean Pirineo izenaren ordez Auñamendi izena erabiltzea. Dakigunez Pirineo mendikatea osoa Bidasoatik Catalunya alderaino doana dugu; Auñamendi aldiz Anie mendiari deitu ohi zaio.

Liburua, fotografia eder eta txukunez hornitua dator. Agian mapa batzuen falta ikusten da, mendizalearentzat hain lagungailu onak bait dira.

Bukatu beharra dugu. Ziur gaude Latxagaren lan eskergari eskerrak Naparroa eta Pirineorako zaletasuna biziki piztuko dela; eta bidenabar zenbait mendizaleren kuriositatea berpiztuko. Izan ere ohituak gaude, mendi erpinetara igo eta kitto, besterik ez egiten. Bost axola zaigu zeharkatu ditugun baso eta haranen izenak, inguruko herrien historia, toki izenak eta abaren jakitea.

Ea apur bat aldatzen garen.

**ANTXON NARBAIZA**  
**Club Deportivo Eibar**

# A propósito de los rescates en Alta Montaña

## LABURPENA

**Mendi gailurretako reskateak dirala ta**

*«Ez daizula izan, ezbehar bat Picos de Europako hormetan edo Pirineoen hegoaldean, zure lagunek ez dutelako izango bide-rik garai ateratzeko».*

*Oso larria da benetan, mendi gailurretako reskateen arduradun legez, erakunde berezi bat ez egotea.*

*Mingarria da askenengo reskatearen adibidea, Peña Viejaren hegoaldean, urte honen Maiatzean. Momentu larri haiek bizi izan zitu-ent mendigozaleek kontatzen dizkigute.*

Desde el pasado 15 de mayo, desaparecieron en Picos de Europa tres alpinistas de Baracaldo, cuando escalaban el Espolón de los Franceses, en la cara sur de Peña Vieja. Era un domingo y el martes sonaron las voces de alarma y las llamadas de socorro. Ese mismo día empiezan a moverse los amigos y van llegando a los Picos de Europa. El tiempo es infame, la tormenta está agarrada a la montaña y no hay posibilidad ni de acercarse a Peña Vieja. Cerca de la base se va juntando gente inquieta y desconcertada, con ganas de ayudarles, de buscarles, de sacarles, de salvarles... de hacer lo que se pueda...

Y se monta el circo del rescate.

Hay una serie de organismos oficiales que se mezclan de modo que nadie sabe bien qué tiene que hacer, quién es el que puede disponer de los medios necesarios e incluso a qué responsabilidades se expone por tomar

## RESUMEN

**A propósito de los Rescates en Alta Montaña**

*«No tengas un accidente grave en una pared de los Picos de Europa o de la vertiente sur de los Pirineos, porque seguramente tus amigos no tendrán medios para sacarte a tiempo».*

*Es muy grave la falta de un organismo especializado responsable de los Rescates en Alta Montaña. El ejemplo del último rescate en mayo de 1977 en la vertiente Sur de Peña Vieja ha sido doloroso. Nos lo cuentan los alpinistas que vivieron aquellos desesperantes momentos.*

alguna decisión. La Guardia Civil de Potes, que a pesar de su buena disposición, quedó paralizada con la aparición de mandos superiores, ajenos a la montaña; una compañía del cuerpo de guerrilleros C.O.E., mandada por un capitán con ganas de ayudar y unos tenientes que ven terroristas en busca de la amnistía en cada escalador vasco; un servicio de la Cruz Roja, entre cuyas misiones están los rescates en Picos, que se siente totalmente desbordada porque han pedido los puentes del diálogo y confiesa con desilusión que no sabe por qué no funcionan las cosas; una Federación de Montaña desamparada y sin medios para actuar... y unos servicios de prensa y televisión decepcionados porque esta vez no ha sido en el famoso Naranjo de Bulnes, y porque se encuentran con unos montañeros que no les dan facilidades para el sensacionalismo, el triunfalismo ni el cotilleo.